



## **9. AKTA**

2005eko irailaren 13an egindako **EZOHIKO TOKIKO GOBERNU BATZAR URGENTEA.**

LEKUA: Pasaiako Hirian eta Udaletxean.

DATA: Bi mila bosteko irailaren hamahiruan.

BERTARATU DIRA:

Lore Suárez Linazasoro a. eta  
Xabier Pombo González j.

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño Andre Alkatea

Lehenengo deialdian, Izaskun Gómez Cermeño alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta Behin-behineko idazkari jauna bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak 9,00etan bilkurari hasiera eman dio eta gai-zerrendako ondoko puntuak aztertzeari ekin diote:

### **1.- Urgentziazko aitorpena A.F.A.-ko 113.1.a) art.**

Ezhoiko bilkura hau premiazkoztat jotzen da, Toki Erakundeen Antolakuntza, Jarduera eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudiaren 113.1.a) artikuluekin bat, ziurtagiri hori atzerapenik gabe onartzeko beharra ikusita.

### **2.- “Trintxerpeko Gran Sol kalearen urbanizaio-proiektua” obraren 7. ziurtagiria (azkena).**

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:



Zka.: 7 (azkena)

Obra: Trintxerpeko Gran Sol kalearen urbanizazio-proiektua.

Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazabal Azkoitia (Udal Arkitektoa) eta José M<sup>a</sup> Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES ARKAITZA, S.A. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGETA SEI MILA SEIREHUN ETA BERROGEITA HAMALAU EURO ETA LAROGETA BEDERATZI ZENTIMO (26.654,89 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-1237/04 xedatutik eta A-746/04 baimendutik ordainduko da.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 9,10etan amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, behin-behineko idazkariak, akta hau egiten dut alkatearen oniritziarekin.